

PARTE HARTZEA

BEHE ALDEKO AUZO-BILERA

DATA 2014/11/04

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERABAKIA
Alkatetza	San Andres Egoitza Aldundiak bere gain hartzeari buruzko informazioa eskatzen dute.	Aldundiak Kabia izeneko erakunde bat sortu du gaur egun udal-egoitzak direnak kudeatzeko. Aldundiak adierazitako planifikazioaren arabera, 2016an zehar hartuko luke bere gain.
Obrak	Kexatzen da Sumendixa-Lezeta-Asola Berri baserrien inguruan kableak solte eta estali gabe daudelako. Lurperatzea eskatzen du.	Lan hau IK-4 Teknikerri dagokio eta Udalak egiteko eskatu dio.
Zerbitzuak	Eskatzen du Karmen kaleko 4-6ko parkean apurtuta dauden baldosak konpontzea.	Karmen kaleko 4-6ko plaza txikiko baldosen konponketa hasi da.
Zerbitzuak	Urkizuko dorreetako bizilagunek eskatzen dute euri-uren teilatu-hodiak garbitzea, buxatuta baitaude.	Mankomunitateak ekin zion euri-uren teilatu-hodien garbiketari graffittien garbiketa-lanak egin zirenean.
Obrak	Eskatzen du Azitaingo geralekuko zubiari okerdura kentzea.	Zubiaren okerdurari, ez irristatzko sistema bota zitzaion irtenbide bezala. Okerdura kentzeko proposamenak beste zubi berri bat eraikitzea suposatzen du, eta aukera hori kontutan hartu da. Hala ere, obra hori azpiko aldeko trenbidearen estalduraren lanekin edota puntu horretatik Malzagara egingo den bidegorriaren eraikitze lanekin batera egingo da.
Obrak	Maltzaga eta Azitain lotuko dituen bidegorriari buruzko informazioa eskatzen du.	PNV eta PSE-Eeren arteko akordioaren puntuetako bat izan zen bidegorria egingo zela. 2016n garatuko da

PARTE HARTZEA

BEHE ALDEKO AUZO-BILERA

DATA 2014/11/04

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERABAKIA
		betetze/gauzatzeko proiektua, eta bertan ezarriko da betetze plana, 2016-2018 bitartean
Obrak	Txopenera iristeko zeharrik hobetzea eskatzen du.	Hotel ingurutik La Salleko pasaguneraino gaineko pasabidea egin zen.
Zerbitzuak	Kexatzen da Txonta 3ko baldosak solte daudelako.	Lanak martxoan burutu ziren.
Zerbitzuak	Txontako isurbideekin dauden arazoak konpontzea eskatzen du.	Solac-eko aparkalekuan urak hartzen zituen estolda-zuloa zegoen, baina ez zegoen sareari lotuta, eta, horregatik ura aparkalekura zabaltzen zen. Kanpoko enpresa bat subkontratatu (H2O), eta arazoa aurkitu eta konpondu egin zen. Harrezkero, ez da beste kexarik jaso.
Zerbitzuak	Txontako argiztapena hobetzea eskatzen du.	Txontako argi guztiak aldatu eta LEDS argiak jarri dira. Azken egiztapena abenduan egin zen. Espaloiaren beste aldean aparkatuz gero ilunpean geratzen zela esaten zuten gunean argi neurketa egin zen, eta emaitza baremoen barruan sartzen zen.
Obrak	La Salletik Araztegiara doan gunean eskailerak eraikitzea eskatzen dute, bertako malda handia dela argudiatuta.	Badaude beste aukera batzuk gunen horretara iristeko, poligonoaren bidetik, hotelaren inguruan.
Obras	Sautxirako sarbideak hobetzea eskatzen du, arrapalen eta igogailuen bidez.	Legealdi honetan zehar, Iparragirre kalea eta Sautxi sarbide mekanikoen bidez lotuko ditugu..

PARTE HARTZEA

BEHE ALDEKO AUZO-BILERA

DATA 2014/11/04

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERABAKIA
Obrak	Urkizu 6tik 16ra arteko espaloia handitzea eskatzen du.	Egitasmoa dagoeneko idatzita dago eta aurrekontuak eskatzen ari dira. 2016 urtearen hasieran ekingo diete lanei.
Obra	Txonta auzoa asfaltatzea eskatzen du..	Eskaera kontuan izango da hemendik aurrera egingo diren asfaltze-lanak egiteko orduan.
Zerbitzuak	Barrenako bizilagun bat kexu agertzen da autopistan dabilzan kotxeek ateratzen duten zaratagatik. Zarataren kontrako panelak jartzea eskatzen du.	Udalak behin eta berriro eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari eustearen eta zarataren kontrako panelak jar ditzan. Hala ere, erakunde horrek ez du aurreikusten, epe motzera, aipatutakoak jartzea. Arrazoi ekonomikoak ematen ditu. Insistitzen jarraituko dugu.
Zerbitzuak	Murrategi 4-6a hobeto garbitzea eskatzen dute.	Murrategi kalea zazpi egunetik bitan garbitzen da,. Mankomunitateari eskatuko zaio ganoraz garbitzeko. Saiakera hori nahikoa izan ezean, zerbitzua indartzea eskatuko da.
Obrak	Azitain Barrena gunea oinezkoentzako egitea eskatzen du.	Eskaera kontuan hartuta, ez dela bideragarria ondorioztatzen da. Beharrezko ikusiz gero, gunerako sarbideak hobetzea aztertuko da.
Zerbitzuak	Trenak eragindako zaraten gaineko eragozpenak jakinarazten dituzte.	EuskoTrenek kendu egin zuen bizilagunei traba egiten zien unitatea, eta Durangora eraman zuen. Beraz, arazoa konponduta dago.

PARTE HARTZEA

BEHE ALDEKO AUZO-BILERA

DATA 2014/11/04

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERABAKIA
Udaltzaingoa	Barrena kaleko bizilagun bat kexu agertzen da txakur-kakak direla eta.	Auzozaina arazoa kontrolatzen saiatzen da, ahal duen neurrian. Udalak ere kontzientziazio-kanpaina bat jarri du martxan aurten. Horretarako, kartelak jarri dira txakur-kakak agertu ohi diren guneeetan, lorategiak kasu.
Udaltzaingoa	Bus geltoki bat eskatzen dute Barrena 50eko biribilgunean. Diotenez, autobusak oso altuak dira eta pertsona nagusiek irisgarritasun-arazoak izan ohi dituzte.	Barrena 50ean ez dago bus-geltokirik jartzeko leku egokirik. Erabiltzaileek espaloiaeren altuera erabiltzea proposatzen dute.
Hirigintza	Auzotar batek Txontako ur kutsatuei buruzko informazioa eskatu du.	Hirigintzako Jarduketa-plana eta Urbanizazio-proiektua idatzi aurretik, lurzoruaren kalitatearen ikerketa eta karakterizazioaren azterketa egin beharko da, eta baita kutsadura antzeman eta hura zuzentzeko moduen azterketa ere. Halaber, ikerketa horren zenbatekoa kalkulatu beharko da. Ikerketa hori administrazio jarduelak egin ahalko du modu subsidiarioan, zeinak behartutako pertsoneri egotzi ahalko dien lanen gastua, lurzoru eta hirigintzaren 2/2006ko legenaren 147.3 artikuluan dioena aplikatuz. Kutsaduraz gabetzeko lanek sortutako obligazioak bere gain hartuko dituzte lanen erantzukinzuna dutenek, indarrean dagoen legegia betez.
Udaltzaingoa	Aparkatzea debekatuta dagoen Sautxi kaleko guneeetan zaintza handiagoa eskatzen dute.	Zaintza areagotu da.
Udaltzaingoa	Eskatzen da autobusek geldialdia egitea Barrena kalea 14an, lehenago egiten zuten moduan	Eskaera Lurraldebus-i bideratu zitzaion, bera baita garelekuak kudeatzen dituena. Ez dela bideragarria ebatzi du.

PARTE HARTZEA

BEHE ALDEKO AUZO-BILERA

DATA 2014/11/04

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERABAKIA
Udaltzaingoa	Udalbus zerbitzua eskatzen da Txontarako.	Behin eskaria aztertuta, ondorioztatu da ez dagoela arrazoi nahikorik Udalbusen ibilbidea aldatzeko. Zerbitzu horren erabileraren inguruko gogoeta eginda erabaki zen gaur egun indarrean dagoena ezartzea.
Zerbitzu Saila	Zarataren kontrako panelak jartzea eskatzen da autobidea Txontatik pasatzen den gunean.	Udalak behin eta berriz eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari euste- panelak eta zarataren kontrakoak jartzeko. Diru-kontuak direla eta ez da momentuz Foru Gobernuaren egitasmoetan sartzen panelok jartzea. Insistitzen jarraituko dugu.
Zerbitzu Saila	Karmen kalea 9-11n pibote ateragarria jartzea eskatzen du auzotar batek.	Lehendik zegoen pibote finkoa kendu eta ateragarria jarri da.
Zerbitzu Saila	Auzotar bat kexu da Urkizu 15eko estolda-zuloa trabatuta dagoela eta.	Mankomunitateari jakinarazi zitzaion estolda-zuloa libratu beharra. Eginda dago lana.
Udaltzaingoa	Urkizuko dorreetako auzotar zenbait kexu dira gazte-lokalek eragindako eragozpenak direla eta.	Eibarko Udalak gazte-lokalak arautzen dituen ordenantza onartu zuen. Udaltzaingoa eta Urbanismo Saila batera ari dira lanean auzotarren salaketei erantzuteko.
Udaltzaingoa	Oinezkoentzako pasaguneen informazio-seinale gehiago jartzea eskatzen da.	Oinezkoentzako pasagunereren bat bistara ez badago, seinaleztatu egiten da. Oinezkoen gunea eta espaloietan seinaleztapena jartzea traba ez izatea zaintzen da.
Udaltzaingoa	Auzokide batek eskatu du abiadura-muga jaistea, oinezkoentzako pasabide goratuak jarrita Sautxi-Barrenako	Barrena 50 kalean oinezkoen pasabide altxatua egingo da, urte honetarako aurreikusita dauden lanen eremuan.

PARTE HARTZEA

BEHE ALDEKO AUZO-BILERA

DATA 2014/11/04

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERABAKIA
Udaltzaingoa	bidean, abiadura-murriztaileek zarata handia ateratzen dute eta. Ibilgailuen abiadura, erdigunean, 30 km/h murriztea eskatu dute	Mugikortasun plana erredaktatzen ari da eta gogoeta egin da horri buruz.
Udaltzaingoa	Barrena kalean egindako lapurreten inguruko informazioa eskatu dute, inseguritate sentrazioa eragiten baitu.	Barrena kaleko lapurretak gertaera isolatu eta puntuala izan ziren, eta ez dute, inolaz ere, arriskuan jarri herriaren segurtasuna.
Udaltzaingoa	Karmen 4-6 arteko parkean poliziaren kontrol eta presentzia handiaoga eskatzen dute, baloiarekin jolastea saihesteko.	Udaltzaiak hara joaten dira, auzotarren baten kexarik baldin badago.
Zerbitzuak	Azitaingo Ermitarako sarrera hobetzea eskatu dute, dioetenez espaloia altuegia baita.	Azterketa teknikoa egin zen eta erabaki zen espaloiak betetzen dituela dagozkion baldintzak.
Zerbitzuak	Salatzen dute garbitzeko makinak ez duela Karmen 4-6 atarien arteko garbiketa-lana ondo egiten.	Inguru guztian parkearen berrikuntzal-lanak egin zirenetik, erraztatzeko makinarekin garbitzen da. Apilaren hirugarren astean Mankomunitatearen metalak garbitzeko makina pasatu zen.
Zerbitzuak	Eskatzen dute barianteko hesiak inaustea eta ibilgailuen zarata arintzeko moduko altueran lagatzea.	Hesien inausketa abenduan egin zen. Hala ere, eskaeraren arrazoa hori bazen, argitu behar da landaretzak ez duela zarata murrizten.
Obrak	Autopistako biribilgunean, oinezkoentzako pasabide bat egitea eskatu dute.	Errepide nagusia da eta hobekuntzak egitea Diputazioaren ardura da. Eskaera igorriko diegu eta insistitu egingo dugu.

PARTE HARTZEA

BEHE ALDEKO AUZO-BILERA

DATA 2014/11/04

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERABAKIA
Udaltzaingoa	Salatzen dute Asua Errekako aldapako edukiontzien inguruan gaizki aparkatuta daudela autoak, eta ondo ikustea eragozten dutela.	Udaltzainek kontrolak eginten ditu zonalde horretatik eta, gaizki aparkatuta dagoen autoren bat ikusten badute, eta jabea ez bada azaltzen, multa jartzen da.
Udatzaingoa	Salatzen dute gazteak Txontako tailer abandonatueta sartzen direla.	Ikusiz gero jendea lokal abandonatueta sartzen, Hirigintza sailarek idazki bat egiten zaio jabeek eskatutz sarrera ixteko.
Zerbitzuak	Urkizuko dorreetan gehiago garbitzea eskatu dute.	Mankomunitateari idazki bat bidali zaio zonaldean garbiketa hobetzeko. Dorreetako arkupeetan mahukaz ureztatzen ari da aldizka.
Zerbitzuak	Auzotar batek Arrateko haur-parkearen baldintzak hobetzea eskatu du.	Haur-parke guztiek zoru motela eduki behar dute eta, horregatik, kortexarekin egindako segurtasun zorua jarri zen, landa eremu bat bait da.
Zerbitzuak	Batek salatzen du Barakaldo 3ko etxeostera sartzeko arripala oso zikin dagoela. Garbitzea eskatu du.	Idazki bat bidal zen Mankomunitatera zonaldeko garbiketa hobetzeko.
Zerbitzuak	Adierazi du jolastokiko gazteluak oso bereizita dauden bi eskailera-maila dituela eta estalki bat jartzea eskatu du jendea ez jausteko.	Jolasen azterketa bat egin zen eta ez zen ezer arrarorik ikusi. Jolasak erabat homologatuta daude; 4 urtetik aurrerako umeentzako dira, ez adin horretatik beherakoentzat..
Zerbitzuak	LIDL-en ondoko parkean komun publiko gehiago eskatzen dituzte.	Araudiak dioenaren arabera, herri bakoitzak 3 komun publiko eduki behar ditu. Eibarren, 5 daude, Urkizun, 2 Amañan, Egogainen eta Untzagan.

PARTE HARTZEA

BEHE ALDEKO AUZO-BILERA

DATA 2014/11/04

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERABAKIA
Zerbitzuak	Jolasguneko gazteluaren bi maila oso bananduta daudela esaten du, eta estalki bat ipintzeko eskatzen du.	Ikuskatu ziren jolasak eta ez zen akatsik somatu. Jolasak homologatuta daude; lau urtetik gorako umeentzako jolasak dira, ez hortik beherakoentzat.
Zerbitzuak	Komunak eskatzen dituzte LIDLeko parkerako	Araudiak ezartzen du udalerrian gutxienez 3 komun publiko egon behar direla. Eibarren arauak eskatzen duena baino gehiago daude, herrian zehar 5 komun baitaude: Urkizun bat, bi Amañan, Egogainen bat eta Untzagan beste bat (Udaletxeko arkupeetan)
Zerbitzuak	Barrena kaleko 7-9an argiak gaizki daudela esaten du.	Bisita egin zen eta ondorioztatu zen ez zegoela inongo arazorik, beraz, arazoa konponduta dago.
Zerbitzuak	Sautxiko tenis-pistako kantxan sare berria eta tinkoi berriak ipintzea eskatzen dute, lehengoak hondatuta baitaude.	Sarea konpondu dute eta tinkoiak ere aldatu dira.
Zerbitzuak	Zabor organikoaren edukiontzietan, irekitzeko sistema aldatzeko eskatzen du.	Eibarren dagoen sistema garatu den bakarra da. Bere garapenean jarduten duten enpresek sistema hobetzen badute, Eibarren ezartzea aztertuko da.
Zerbitzuak	Jakin nahi du zer zigor dagoen zabor organikoaren edukiontzia bolada batean erabiltzen ez badira.	Bostgarren edukiontzia erabiltzeagatik dagoen deskontua ez da ezarriko, baldin eta erabiltzen ez badira edo 9 hilabetean 20 aldiz baino gutxiagotan erabiltzen badira.
Zerbitzuak	Paperontzi gehiago eskatzen ditu Barrena kalerako.	Gaur egun, 6 zakarrontzi daude kalean zehar. Bizilagunek gehiago jartzeko beharra ikusten badute, kokapena zehaztu beharko lukete eta aztertuko da.

PARTE HARTZEA

BEHE ALDEKO AUZO-BILERA

DATA 2014/11/04

Id. Proposamena Saila	LABURPENA	ERABAKIA
Zerbitzuak	Kexu da Barrena kaleko 46-48an bidera ematen duen horma oso hondatuta dagoela.	Hasi dira konpontzen eta pintatzen Barrena kaleko 46-48an bidera ematen duen horma.
Zerbitzuak	LIDLeko parkean, zuhaitzak inausteko eskatzen dute.	Inausketa neguko lanekin egingo da, zuhaitz horien ezaugarriak direla eta, hori bait da garairik egokiena.
Zerbitzuak	Barrena 8ko auzotar bat kexu da kale horretako intxaurodoak eragozpenak sortzen dituztela. Inausteko eskatzen du.	Puntu horretan ikerketa lanak egin ziren eta intxaurodoak ongi daudela ondorioztatu zen. Hala ere, neguan, inausketa lanak egingo dira, hori bait da lan horiek egiteko garairik egokiena.
Zerbitzuak	Barakaldo kalerako iturri bat eskatzen du.	Iturria jartzeko inbertsio handia egin behar da: espaloia apurtu, ura tuboan eraman..., momentuz ez da egingarria.
Zerbitzuak	Txontan arratoi-garbiketa egiteko eskatzen da.	Arratoi-garbiketaz arduratzen denari agindu zitzaion beste garbiketa bat egiteko. Esan behar da udan Eibar osoan egin zela garbiketa orokor bat.
Zerbitzuak	Txonta kalean zintzilik dauden kableak konpontzeko eskatzen du.	Argiteria publikoko kableak berbideratu ziren, bidearen parean baitzeuden. Beste kableria Telefonicarena da eta Udalari ez dagokio horiek kentzea. Dena den, egin zaie eskaria Telefonikakoei.